

2022ari begirada

ZALDIBIAKO KULTUR ETA KIROL TALDEEKIN

2022ko apirilaren 6an



ZALDIBIAKO
UDALA

GAIORDNA

- 2021aren errepaso txiki bat
- 2022: egoera eta asmoak
- Festak 2022
- 2022 EGUTEGIA
- Kultur/kirol instalakuntzak
- Kultur eta kirol taldeentzako udal diru-laguntzak
- Tarte irekia

2021aren errepassoa

Orokorrean 2020ko ezaugarri asko mantendu ziren: ziurgabetasuna, Covid-neurriak...

Herritarrengan eta taldeetan asko sumatu zen egoera hainbeste luzatzearen nekea.

Taupadari eta kultur-kirol eskaintzari eustea izan genuen helburu, taldeei begira eta herritarrei begira ere.

Martxoan egin genuen bilkuratek egitasmo politak irten ziren: udaberria loretan...

Festak: ez zen ez auzoetako, ez herriko festarik antolatu.

...Taldeen bizipenak eta ekarpenak jaso

2021aren errepassoa







2022: egoera eta asmoak

Oraindik neurriren batzuk indarrean badira ere, ohiko moldeetara itzultzeko aukera izango dela dirudi, nahiz eta ziurtasunik ezin den eman.

Talde gehienek ohiko jardunari ekin diozue eta lehiaketa zein ekitaldiak antolatzeari ere bai, nahiz eta erabateko normaltasunez ez izan.

Zuhurtziaz, baina aurrera egiteko urtea izatea nahi dugu aurtengoa. Kultura eta kirola herritarren animoa eta herriko giroa altxatzeko palanka garrantzitsuak izango dira.

2022: FESTAK

Festen ohiko agendari heldu nahi zaio: Saturdiko Festa, San Isidro, Alamartxo, Gazte Festak, Txamarretxeko festa, Herriko festak, Aiestaran-Erreka auzoko festa...

Horretarako ohiko antolaketa lanak berreskuratu beharko dira, eta ahal dela hobetzen ere saiatu, jai herrikoiak izateko

2022: EGUTEGIA



KULTUR ETA KIROL INSTALAKUNTZAK

Hainbat instalakuntza: Gure Ametsako Biltegia - Antzokia - Kimuene - Karreane - Herri Aretoa - Resti - Futbitoa - Luberri - Toki-Alai - Olaldeko parkea

Sarraila elektronikoak

2022: LED argiteria frontoietan + argi fitxak

2022: Kimuene azken fasea gauzatzea

HELBURUAK: instalakuntzak hobetzen eta antolatzen joatea, taldeen beharretara ahalik eta ondoen egokitzeke eta ahal dela eskaintza zabaltzeko.


KIMUENE: AZKEN FASEKO LANAK

- Behe solairuan, 140,29 metro koadroko aretoa gehituko zaio azken fase honekin. Gune honek herritarrei kultur-kirol-gizarte zerbitzuak emateaz gainera, badu beste bokazio bat. Izenak berak dioen bezala, Kimuene “kimuek” osatzen dute, aldian-aldian daudenek.
- Espazioek eta altzariek erabilera anitzeko bide ematen dute, jarrikendu, eraman-ekarri, gela txikiak-areto handiagoak, jarduera bakoitzak eskatzen duenera egokituz.
- Bakoitzak bere urteroko programa edota jarduerak ditu, baina espazio bera konpartitzeak bide eman lezake orain arte ezagutu gabeko gurutzaketak gertatzeko: zergatik ez xakean jokatu musika eskolan zeharkako xirula ikasten ari den ikasle baten doinuek girotuta? Edo dantza eta bertsoa uztartzen dituen emanaldi bat sortu?
- Kulturgune honek herritarren arteko gurutzaketak gertatzea lagundu nahi du ekimen eta sorkuntza berriak loratu daitezen.





Fachada Oeste



2022: udal diru-laguntzak

- 2022ko deialdia zabalduko dugu laster. Oinarriak onartu bezain laster bidaliko dizkizuegu (aurrekoen antzekoak dira) eta ondoren hilabeteko epea egongo da eskaera egiteko.
- Egun puntualak antolatzen dituzten Elkarte eta taldeekin zuzeneko hitzarmenak egingo ditugu.
- Iaz bezala puntuaketaren arabera laguntza portzentaia tarteak zehaztuko dira.
- Dirulaguntzak bi zatitan ordainduko dira: %60a ebazpena eman eta handik 15 egunera eta gainontzeko %40a urteko memoria aurkeztu eta onartu ondoren, 15 egunera. Urteko memoria aurkezteko azken eguna 2022ko urtarrilaren 15a izango da.
- Laguntzara aurkezteko zalantzen argipenak eta bestelakoak Kultur Etxean emango zaizkizue.



TARTE IREKIA

ESKERRIK ASKO TA AURREA!